

M. A. MINTEGI LARRAZA



9mm **PARABELLUM**

n a r r a t i b a

e r e i n

9 mm Parabellum

Narratiba, 137

Obra honen edozein erreproduzio modu, banaketa, komunikazio publiko edo aldaketa egiteko, nahitaezkoa da jabeen baimena, legeak aurrez ikusitako salbuespenezko kasuetan salbu. Obra honen zatiren bat fotokopiatu edo eskaneatu nahi baduzu, jo CEDROra (Centro Español de Derechos Reprográficos, www.conlicencia.com; 91 702 19 70 / 93 272 04 47).

Liburu honek Eusko Jauriaritzako Kultura eta Hizkuntza Politika Sailaren diru-laguntza jaso du.

1. argitalpena: 2021eko azaroan

Maketazioa:
Erein

Azaleko irudia:
Iván Landa

© M. A. Mintegi Larraza

© EREIN. Donostia 2021

ISBN: 978-84-9109-714-3

L. G.: D 1316 - 2021

EREIN Argitaletxea. Tolosa Etorbidea 107

20018 Donostia

T 943 218 300

erein@erein.eus

www.erein.eus



Inprimatzailea: Itxaropena, S. A.

Araba kalea, 45. 20800 Zarautz

T 943 835 008 F 943 130 822

e-mail: edizioak@itxaropena.net

www.itxaropena.net

9 mm Parabellum

M. A. Mintegi Larraza



*...No hay que volver jamás, jamás, una vez que
has decidido irte. Si vuelves es un suicidio, es
como darte la vuelta en la cama de cara a la
pared para echarte a morir, es como la rata
que se mete en la madriguera para espicharla,
para dejar que el veneno la mate de una vez.
Al lugar donde has salido para poder respirar,
para poder vivir, no hay que regresar jamás.*

Miguel SÁNCHEZ OSTIZ, Zarabanda

*Bizirik iraun ahal izateko, erreprimitu egin behar
da oroitzapena, ezabatu.*

Lorenza MAZZETTI

Bi kilometro herrira iristeko. Minutu bat pasatxo. Errepidea zuzengune luzea da alderdi honetan, eta b izkor zoaz. Bihurgune bat ohartarazteko seinaleak dakuskizu urrutian. Iku-sitakoan zerbait berezia sumatu duzu zure baitan, kilimak sabelean. Heldu da unea. Bihurgunea hartu eta sorterriaren aurrean egongo zara. Arnasaldi sakona egin eta oina altxatzen duzu azeleragailuaren pedaletik. Abiada motelduta sartu zara bihurgunean. Irten zarenean herria agertu da urrutian, goiz lanbrotsuan lauso. Buruari eragin diozu: gandupean iraganaldia zain duzula iruditu zaizu.

Hurbilduz zoaz. Begien bistakoa eta gogoan duzuna ez datoz bat. Aldatuta dago herriko sarrera, erabat, errepidetik hasita. Aldatuta dago errepidearen ezkerraldeko industrialdea. Lantegi batzuk, keak belztuak, berritu egin dituzte eta beste zenbait eraitsi eta berriak eraiki dituzte haien orubee-tan. Garai batekoak baino txukunagoak dira berriak. Herriaren kanpoaldean zegoen galdategia eta haren keak irensten zuen langile-auzoa iraganeko irudiak dira jadanik. Orain,

tximinia luzeen orde, merkataritza-gune baten kartel erraldoiak ikusten dira, eta etxe zartatuak zeuden orubean, erai-kin berriak.

Arreta jarri duzu errepidean alderik alde dagoen panelean. Bostehun metro herriko sarrerarako. Panela atzean utzita, autoaren keinukariak piztu dituzu. Autobidetik atera zara. Beilatokia merkataritza-gunearen albo batean omen dago. Biribilgune batera iritsi zara. Bide-seinale batek beilatoki aldera bideratu zaitu. Harantz zoaz.

Ondoan aparkatzeko tokirik ez, beilatoki aurretik pasatu zara. Atarian lagun batzuk ikusi dituzu, zigarretak erretzen edo berriketan. Aurrerago topatu duzu aparkatzeko tokia. Motorra gelditu, esku-balaztari eman eta atzerako ispilutik beilatoki aldera begira egon zara. Zigarreta bat piztu duzu. Leioa behearaino jaitsi eta auto barruan egon zara, erretzen. Premia zenuen. Kafe bat hartzeko gelditu zarenetik, hiru bat ordu jadanik, ez duzu nikotinaren fereka sentitu biriketan.

Pentsakor zaude zigarreta erretzen. Kontuak ateratzen. 1997ko maiatzean joan zinen. Gaur, automobilaren panelari begiratu diozu eta 2013ko martxoan zaude. Beraz, bi hilabete barru hamasei urte izango dira herritik joan zinela. Joan ez, alde egin zenuela, hobeto esan. Herriko giroa itogarrri bihurtu, eta aire berria arnastu beharrean zeunden, murgilduta zeunden zulo ilunetik ateratzeko zerumuga garbiago eta zabalagoren beharrean. Joan zinenean hiru hamarkadako bizipenak utzi zenituen herrian. Onak eta txarrak, normala denez. Txarrenak azkeneko urteetakoak, zalantzarik gabe. Alde egin eta gero, denborarekin, herrian bizi izandakoak oroitzapen bihurtu zitzaizkizun, bizipenak ez baitira inoiz

ahazten. Zokora daitezke, baina ahaztu ez. Urruntasuna lagunduta zokoratu zenituen zuk. Baina ez zen inondik ere egun bateko lana.

Bat-batean iraganaren lehenengo eraso sentitu duzu. Egun gutxi barru, izan ere, Josu hil zuten urteurrena da. Hemezortzi urte izango dira gertatu zela. Lekuko izan zinen. Tamalez. Baina inork ez daki hori, zure baitan gordea duzu, barru-barruan. Josuren heriotzak, bestalde, inflexio-puntu bat markatu zuen zure bizitzan, amaiera eman baitzien zure aspaldiko zalantzei. Eta akabera ere eman zion ordurako kili-kolo zegoen zure bizitzaren etapa bati. Garrantzitsua. Zokoratua baina ahaztua ez duzuna.

Zigarretari begiratu diozu. Erdia baino gehiago duzu errea. Ezpainetara daramazu. Atxiki luzea. Kea poliki-poliki bota. Birikak ketik libre, putz egiten duzu. Oraindik oinak herrian jarri ez, eta oroitzapenak erasoka jadanik! Buruari eragiten diozu. Badakizu erasoak saihetsezin izango direla, neurri handian edo txikian nozitu beharko dituzula, saihesten ahaleginduta ere. Ezinbestean. Urte asko igaro dira joan zinetik, herria eta giroa ez omen dira ordukoak, baina ez da nahikoa izango. Beti egongo dira iragana gogoraraziko dizuten pertsonak, gauzak eta bazterrak.

Gauzen artean, esanguratsuen eta kezkarriena etxean daukazu gordeta. Joan aurretik kendu egin behar zenuen gainetik. Baina ez zenuen egin, eta ahaztua gelditu zen etxean, zuk bakarrik dakizun ezkutalekuan. Han egongo da oraindik. Ama bizi bitartean bazenekien toki seguruan zegoela gordeta, amak inondik inora ez baitzuen bizi izan zen etxea utziko; bazenekien herioak beste inork ez zuela handik

aterako. Baina ama hil da, eta ezin zara gehiago luzatu, gaineretik kendu behar duzu garai ilunetako adierazlea. Orain hamasei urte egin ez zenuena egin beharrean zaude orain, halabeharrez.

Orduari begiratu diozu. Hamabiak eta hoge minutu. Mugitu beharrean zaude. Aurre eman saihetsezinari. Kanpora atera zara. Oinak lurrean jarri dituzunean, azken atxikia eman diozu zigarretari. Lurrera bota. Zanpatu egin duzu, oina haren gainean ezker-eskuin mugituz. Ondoren, automobilaren atea itxi, eta urrutiko agintearen botoia sakatu. Klaska egin dute atek.

Abiatu zara beilatokirantz.

Ate aurrean koinatua ikusi duzu. Lagun batzuekin dago. Gertu zaudela, zure etorreraz ohartu da. Ikusi orduko, irribarre zabala aurpegian, besoak luzatuta dator zuregana.

—Martin, aspaldiko! —Besarkatu egin zaitu—. Zer moduz hago?

—Ongi esan behar, Imanol. Eta zuek?

—Hainbestean. Gauza hauek ez dituk atseginak, espe-roan egonik ere. Baina txarreanean, lasai joan duk ama, denbora gutxian eta sufritu gabe. Zeukan adinarekin gehiago ezin eskatu.

—Ez, noski. Niretzat ere nahiko nitek horrela izatea.

—Nork ez? Aizak, arratsaldean iritsiko hintzelakoan geundean, hileta elizkizunetarako.

—Ez ba. Goizeko seietan abiatu nauk eta zuzenean etorri. Geldialdi bakarra egin diat bidean.

—Hator, Mila barruan zagok.

Sartu aurretik bostekoa eman dizute koinatuarekin daudenek. Pare bat ezagutu dituzu. Gainerakoak ez, aurpegiren bat edo beste ezagun eginagatik. Doluminak eman dizkizute. Eskerrak eman dizkiezu eta beilatokira sartu zara. Begiratu bat eman diozu barrukoari. Sarreraren eskuinean harrera tokia ikusi duzu, hormetan koadro batzuk, paisaia ederrak, paradisuaren edertasunaren iragarleak edo. Aurrean, gela batzuk. Gela bateko atea zabalik dago. Ate ondoan, eskela bat. Amarena. Hotsen zurrumurrua dator gelatik. Arnasa sakon hartu eta barrura zoaz. Bete samarra dago, emakumezkoak gehienak. Arreba ikusi duzu jendearekin hizketan. Harengana joan zara. Ikusi zaituenean, «Oi, Martin, iritsi zara!» esan dizu eta elkar besarkatu duzue. Hortik aurrera, kanpokoa errepikatu da atzera, aldaera gutxi batzuekin.

Atarikoekin konplututa, gorpua dagoen tokira hurbildu zara. Gelatxo batean dago, leiho baten ostean. Hilkutxa zabalik dago. Begiratu diozu ama zenari. Zimurrak gorabehera, gogoan gordeta zenuen emakume bera da begien aurrekoa, irribarre gutxikoa. Hil eta gero ere, seriotasuna ageri du aurpegi luzean. Arreba hurbildu zaizu. Pixka batean isilik egon zarete biok, gorpuari begira.

—Bi astetan joan zaigu, Martin. Bihotza gastatuta. Su-fritu gabe. —Malko bat lerratu zaio masailean behera.

—Hobe horrela, ez duzu uste? —zuk.

—Bai, noski. Hala ere... Eta zuri...? Zuri nola doakizu bizitza?

—Ustekabekorik gabe. Besterik ez dut eskatzen. Beraz...

—Pozten naiz. Geldituko zara egun batzuk, ezta?

—Beharrezkoak bakarrik. Ez nau ezerk lotzen herrian, badakizu.

—Bai, baina... Gure etxean geldituko zara?

—Aukeran, nahiago amarenean. Nirea izandako gelan lo egingo dut.

—Prest daukazu. Uste nuen han geratu nahiko zenuela, eta gela aireztatzeaz gainera, ohea ere prestatu dizut.

Ez duzu ezer gaineratu. Biok isilik. Biok gelaxka barrura begira. Milak eten du isilunea.

—Orain gutxi joan da Maider. Josune ere egon da. Adeitsu, beti bezala –esan dizu, eta begira gelditu zaizu, zure erreakzioaren zain edo.

Ez duzu txintik esan. Baina zure baitan ziztada bat bezalakoa sentitu duzu eta oroitzapenak azaleratzen hasi dira. Ez zaitu ustekabeen harrapatu arrebak esandakoak. Bazenekien gertatuko zela; ez, ordea, zer eragin izango zuen zuregan. Oraingo honetan, behintzat, oroitzapenen eraso ez da larria izan.

—Zer moduz dago Maider? –galdetu diozu azkenean, behartuta.

—Ongi, orain urte batzuk baino lasaiago, baina saltsa askotan sartuta.

Ez duzu ezer esan. Maider... Alaba galdua... Bizitzan gertatutako porrota. Beste bat. Hau, denetan handiena, seguru asko.

Aipamenak, esan bezala, oroitzapen kutxaren atea zabaldu dizu.

Hiru urte zeneraman Gironan bizitzen. Hiru urte haietan Mainerrekin izandako harremanak hutsaren hurrengoak izan ziren. Urtebetetzean zoriondu egiten zenuen, eta azken urteetan, hori ere ez. Aurretik ere, herrian, Josune eta biok bereizi eta gero, harremanak hoztuz joan ziren, axaleko bilakatu arte. Josunek, berriz, ez zuen interes handirik jarri bestela izan zitezten. Eta zu ere, egia esan, ez zinen gehiegi ahalegindu alabarekin hurbiltasuna gordetzen, aitaren rola betetzen, argi eta garbi esanda.

Eta hori gutxi balitz bezala, Josune Koldorekin hasi eta gero, egoerak okerrera egin zuen. Legeak ezarritako betebeharrak bete zenituen, zintzotasunez eta hutsik egin gabe, baina afektiboak ez. Beraz, urtetik urtera, alaba zuregandik urrunduz joan zen, zure bizitzatik desagertu zen arte. Amari eta bereziki arrebari esker izaten zenuen haren berri, bestela ezer ez.

2000. urteko udan hiru egun pasatu zenituzten elkarrekin. Josune Tinduferra joan zen Koldorekin saharar errefuxiatuen kanpamentuetara, Maider Milarekin utzita. Mila Costa Bravako kanpin batera joaten zen familiarekin oporretara, eta bidaiara aprobeztatuz, bisitatzera joan zitzaizun seme-alabekin eta Mainerrekin. Ez dakizu nola konbentzitu zuen, baina Mainerrek amore eman eta zurekin gelditu zen egun batzuk pasatzera. Hamalau urte betetzera zihoan, adin konplikatuak zalantzarik gabe, eta, aurrekariak ikusita, ziur zeunden hiru egunak luze egingo zitzaizkizuela. Bioi.

Elkartzea adeitsua izan zen. Bortxatu samarra, baina adeitsua. Hotza ere bai, ordea. Eguna Besalún pasatu zenuen denok batera, Erdi Aroko herri ederrean. Arratsaldea

aurrera zihoala joan ziren Mila eta bere etxeakoak, eta aita-alabak bakarrik gelditu zineten.

Eta orduantxe hasi zen atzerako kontaketa luzea.

—Bueno, Mainer, zer gustatuko litzaizuke egitea hiru egun hauetan? —galdetu zenion, etxera bueltan zentozela, isilaldi luze baten ostean.

—Lehengusuekin egon hondartzan —erantzun zizun bitan pentsatu gabe.

—Eta egongo zara, Mainer, baina hemendik hiru egunera. Gustura edo ez, hiru egun pasatu behar ditugu elkarrekin. Hori bazenekien etorri aurretik. Eta, gainera, ez dut uste behartuta etorri zarenik, ezta?

Bizkarrari eragin zion neskak, gora eta behera. Hitzik ez. Zuk hizketan jarraitu zenuen.

—Bihar, nahi baduzu, Pirinio aldera joango gara, Nuria haranera. Polita da, ikusiko duzu. Kremailera-tren batean igoko gara. Zer iruditzen zaizu?

—Nahi duzun bezala. —Hartan, bizkarrari eragiteaz gain, hitz egin ere egin zuen, axolagabe bada ere.

—Eta etzi inguruak erakutsiko dizkizut. Besalú ez ezik, beste toki ederrak ere badaude inguruetan. Ikusiko duzu.

—Zuk esaten baduzu...

Igaro ziren hiru egunak. Zuk uste baino azkarrago gainera. Eta lasaiago. Hiru egunetan jarrera hotzari eutsi zion Mainerrek. Etsia hartua zuen, nonbait, eta ez zen behin ere kexatu. Aldez aurretik ikasitako gidoia betetzen ari zela pentsatu zenuen. Egun haietan honetaz eta hartaz hitz egin zenuen, sakontasunetan sartu gabe, eztabaidak saihestuz. Ados jarriak zeundetela ematen zuen. Isilaldi luzeak eta begirada

galdutako momentuak ere ez ziren gutxi izan, tentsioa ere nabarmen samarra batzuetan, baina ez zen istilurik izan zuen artean.

Hiru egunak igarota, kostaldera zindoazten. Biok isilik. Mainer, begirada galdua errepide bazterretan. Zu, arreta errepidean jarria. Halako batean, isilaldia eten zenuen.

—Mainer, ez dakit zer irudituko zaizun, baina agian gehiagotan egon beharko genuke harremanetan —esan zenuen, Roses herria bistan.

—Ez dakit zertarako —erantzun zizun, zakar samar.

Zalantzak. Segundo gutxikoak.

—Besterik ez bada ere, bizirik gaudela jakiteko. Azken finean, aita-alabak gara.

—Orain konturatu al zara?

—Axolagabekeria eta guzti, ez diot uko egin aitatasunari.

—Orduan, zergatik joan zinen etxetik?

—Beste aukerarik ez nuelako. Gauzak ez zeuden ondo amaren eta bion artean. Zuk badakizu hori. Amaren eta zure mesederako utzi nuen etxea. Istilurik sortu gabe. Baina ez niri leporatu errua. Niri bakarrik ez behintzat.

—Zure erruz zeuden gauzak gaizki.

—Nire erruz? Zergatik?

—Batzuk aberriaren alde hiltzen, eta zu haien kontra zeundelako. Horregatik.

—Nork esan dizu hori? Amak? Koldok agian? Hitzontzi pedante horrek?

—Umea nintzen, baina gorra ez.

—Artean ez zeuden gauzak ongi ulertzeko moduan, Mainer.

—Baina denborarekin, bai. Denborarekin, gauzak argiago ikusi nituen.

—Alde batekoei bakarrik entzunda zaila da gauzak argi izatea.

Isilaldi bat. Mainer, pentsakor. Zu, zain, nondik jotzen zuen.

—Ba, nik argi ditut.

—Koldok argituak, apika?

—Ez sartu Koldo tartean. Jeloskor zaude, ala? Ba, lasai egon zaitezke, niretzat amaren bikote-laguna besterik ez da eta.

Erantzunak poza modukoa eman zizun. Baita zer pentsatua ere. Baina ez zenuen ezer esan. Ez zenuen nahi Koldori zenion ezinikusia agerian gera zedin, nabarmen samarra izanagatik. Koldo ez zen izan Josunereren eta zure arteko bantantzearen erantzulea, ez behintzat zuzena, baina, arazoek etxeko hormetako mugak gainditu zituztenean, neutrala ere ez zen izan. Haren iritziek, ziur zeunden, eragina izan zuten Josunerengan. Batik bat, Josurena gertatu eta gero. Apaizak pulpitutik botatakoak bezalakoxeak ziren askotan. Gehiengotan ez esateagatik. Eta denborarekin, iritzia ez ezik ohea ere konpartitzen hasi ziren. Alaba ez, itxuraz. Zergatia galdetzear egon zinen, baina asmoa baztertu zenuen azkenean.

—Tira, Mainer, hobe kontu zaharrak alde batera uztea—esan zenion—. Gaur behintzat. Aurrerago, nahi baduzu, lasai eta zabal hitz egingo dugu. Badakizu non nagoen. Telefonoa emango dizut. Hala ere, argi izan hau: nik maite zintuztedan. Amak hartu zuen erabakia. Nik ezin izan nuen ezer egin, dena nire kontra zegoen, etxean eta kalean ere bai.

Baina, benetan esaten dizut, ez diot gorrotorik amari. Ez orduan, ezta orain ere. Ez zebilen ondo, lur jota zegoen; eta, batzuek lagundu beharrea nire kontra xaxatu zuten.

—Zer esan nahi duzu, errua ez zela izan ez zurea ez amarena? —Haserre samar esan zizun.

—Ez da hori, inondik ere ez. Esandakoa, noizbait hitz egingo dugu horri buruz, nahi baduzu, noski.

Alferrik zen jarraitzea. Zertarako! Hiru egunetan istilurik izan ez, eta azken momentuan izateko? Ez zuen merezi. Gainera, kanpinaren atarian zeundeten jadanik.

Baina orduko asmoak haizeak eramane zituen. Hura izan zen elkarrekin egon zineten azkeneko aldia.

Ahots batek iraganalditik orainera ekarri zaitu. Ezagutu duzu. Karlosena da, aspaldiko lagunarena. Garai hartako lagunik minena, azkenaldian batez ere.

—Martin, aspaldiko, emadak bosteko hori. Zer moduz bizi haiz?

Ezpainetan irribarre zabala du lagunak. Haren aldamenean emaztea dago, Mirari. Bostekoa eman, besarkatu, eta zaplada batzuk eman dizkiozue elkarri. Ondoren, musu bana masailetan Mirariri. Une batez elkarri beha egon zarete. Denbora ez da alferrik igaro, baina onbera izan da biekin, ondorioa atera duzu behaketa bukatutakoan.

—Bizi, iraun... Ez zakiat zer esan. Baina ez nauk kexatzen —esan diozu.

—Aizak, uste genian ez hindugula gehiago ikusiko. Zenbat urte joan dituk...

—Hamar bat, Bartzelonan elkarrekin egon ginela. —As-teburu batean egon zineten elkarrekin hirurok—. Eta laster, hamasei, hemendik joan nintzela. Urte pila.

—Bai horixe! Nola pasatzen den denbora! Egun batzuk egongo haiz herrian, ezta? Behin etorritz gero...

—Bai. Baina ez diat egonaldia gehiegi luzatzeko asmorik.

Bikote bat etorri zaizu doluminak ematera. Ez dituzu ezagutu. Milaren eta Imanolen lagunak direla pentsatu duzu. Bikotearen etorrerarekin, Karlos eta emaztea bazterreratu egin dira. Mirari emakume batekin hasi da hizketan; Karlos zain gelditu da, zu noiz libratuko. Itxaronaldia ez da asko luzatu. Libre gelditu orduko berriro elkartu da zurekin.

—Trago bat hartzera joango al gara? —galdetu dizu.

—Ongi. Eta mokadu bat jatera ere bai. Zer edo zer jateko beharra zeukaat, pintxoren bat edo. Eta, dena esateko, zigarreta bat erretzeko ere bai.

Irten zarete kanpora. Atarian ez zaizue inor elkartu. Hobe, pentsatu duzu, Karlosekin eroso sentitzen baitzara. Elkar ezagutzen duzue, ongi ezagutu ere, eta, harekin, iraganeko mamuak errazago edukiko dituzu arrastoan sartuta. Karlosek, izan ere, badaki ez duzula gogoko iraganean aztarrika ibiltzea. Beilatokitik gertu dagoen tabernara joan zarete. Geroxeago, edariak eskuetan, kanpora irten zarete, zigarreta ezpainetatik zintzilik daramazula, piztu gabe, pizteko irrikaz.

—Dena ondo, orduan, Girona aldean —jakin nahi izan du Karlosek.

—Bai, bizi naizen herria lasaia duk, inguruak ederrak... Eta lana etxean egiteko zortea diat. Gehiago ezin eskatu.

—Lagunak?

—Bai, noski, baina lagun minik ez.

—Beraz, eta barkatu atrebentzia, bikotekiderik edo antzekorik ez.

Zure ezpainetan irribarre moduko bat azaldu da. Atxiki bat eman zigarretari, kea bota, eta erantzun diozu:

—Bai eta ez. Ez zekiat nola esan, lagunak baino ez gaituk. Berak ez dik konpromiso sakonik nahi; alegia, ez duela loturarik nahi inorekin, eta nik ere ez. Gainera, bera Bartzelonan bizi duk.

Pirinioetan ezagutu zenuen Nuria, izen bereko bailaran, Puigmal menditik behera zentozen egun sargori batean. Bailaran dagoen santutegitik ordubetera-edo zeundela, bat-batean ipar-haizea sartu eta ekaitza lehertu zen. Berehala trumoi-hotsek dardaraz jarri zuten mendia, tximistek sutan zeru iluna. Hodeiak beren sabela husten hasi ziren, txingorra eta euri-tanta lodiak lurrera bortitz bidaliz. Artzain-txabola batean aterpetu zinen erauntsitik babesteko. Barrura sartu eta, handik gutxira, beste lagun bat elkartu zitzaizun, arrapaladan artzain-bordan sartuz hura ere. Emakume bat zen, zure adin bertsukoa. Blai eginik zetorren. Zu ikusita ziplo gelditu zen, agerpen baten aurrean balego bezala. Lehenengo uneko izualdia gaitutakoan, elkar agurtu zenuten. Gero, emakumeak aurpegian itsatsiak zeuzkan ile-xerloak kendu bitartean, isilik egon zineten. Zuk hautsi zenuen larri bihurtzen ari zen isiltasuna. Eguraldiaz aritu zineten aurrena, eta, hurrena, mendiko kontuez. Ekaitza baretu zenean, eta zuen artean hasieran sortu zen izotzaldia urtuta, elkarrekin ekin zenioten bideari. Kremlera-treanean ere elkarrekin jaitsi zineten.

Halaxe hasi zen zuen arteko adiskidetasuna. Konpromisorik gabeko adiskidetasuna. Orain bost urte, gutxi gorabehera.

—Bi otso bakarti zarete, hortaz —esan dizu Karlosek.

—Halaxe duk, bai. Bakoitza bere lurraldearen jabe eta talderik gabeak.

—Garai batean ez bezala.

—Bai horixe! Ongi dakian bezala, kokoteraino bukatu nian taldeez eta artaldeez.

Hitzik gabe ados jarri, eta ez duzue gaian sakondu. Edariak bukatutakoan, beilatokira itzuli zarete.

Bazkalordua. Beilatokitik gertu dagoen jatetxean zaudete arrea, koinatua eta beren bi seme-alabak. Kafeak eskatzeko garaian gazteak altxatu egin dira. Joan nahi dute.

—Bost eta erdietan beilatokian —gogorarazi die amak—. Maider ere ordu horretan etortzekoa da.

Maidarren aipamenak ezinegona eragin dizu berriro ere.

—Zenbat urte ikusten ez duzula? —galdetu dizu arrebak, seme-alabak joan direnean.

Isilaldia, erantzun aurretik. Kontuak atera arte.

—Hamalau bat. Zuekin eraman zenutenetik, zehazki. Telefonoz, hamar bat. Zertan da haren bizitza?

—Hor dabil, saltsa bat baino gehiagotan sartuta: lana, politika, feminismoa... Baina, ez dakit nola esan, duela urte batzuk baino lasaiago hartzen du orain. Zera esan nahi dut, ez dabilela garai batean bezain sutsu...

—Nori ikasia izan du, sutsu izateko —esan duzu, Koldo gogoan, baina izena aipatu gabe.

—Jaio zenetik, Martin, nik esango nuke. Baina areago gaztarroan, noski, zuena gertatu eta gero. Maisu ona izan zuen etxean —esan dizu Milak, nortaz ari zinen ohar-turik.

—Bakarrik bizi al da? —galdetu diozu, burura etorritakoa alde batera utziz.

—Ez, orain ez, neska-laguna du.

—Aspaldi dago etxetik kanpo?

—Lanean hasi zenetik. Aspalditik. Hogei urte betetzear izango zituen. Ez omen zen ondo moldatzen Koldorekin.

Koldo berriro. Zorioneko Koldo. Ernegazioa sentitu duzu. Saiatu zara ezkutuan gordetzen. Une horretan telefonoa hoska hasi zaizu. Gaitz erdi! Eskuan hartu, eta «Nuria» irakurri duzu pantailatxoan. Altxatu eta kanpora zoaz hitz egitera. Itzuli zarenean, kafeak mahaian daude. Zurrupaka hartu, eta altxatu egin zarete, beilatokira itzultzeko. Bostak dira. Bost eta erdietan itxi egingo dute. Seietan dira hileta elizkizunak.

Seietarako, hogei minutu. Beilatokiko langileak prestaketak egiten hasi dira, gorpua elizara eramateko. Kanpoan zaudete, zigarreta bat errez. Ilobak datoz. Eta ilobekin emakume gazte bat. Maider. Estura sentitu duzu. Arnasa sakon hartu. Poliki bota.

—Kaixo, osaba. Iritsi gara. Ama honezkero urduri egongo da, ezta? —galdetu dizu ilobetako batek.

—Ez dut uste, erretzera atera naizenean lasai zegoen behintzat.